



#DonostiaBiziDut

ZERBITZUA ESKURATZEKO ETA ERABILTZEKO BALDINTZAK 2.OR.

CONDICIONES DE ACCESO Y UTILIZACIÓN DEL SERVICIO PAG.11

“Dbizi Parking” ZERBITZUA ESKURATZEKO ETA ERABILTZEKO BALDINTZAK: BIZIKLETA/ZIKLOEN APARKALEKU SEGURU AUTOMATIZATUAK DONOSTIAN (ESPERIENTZIA PILOTUA). V1

Lehenengoa. Zerbitzuaren kudeatzailearen identifikazio datuak.

Bizikleta/zikloen aparkaleku seguru automatizatuaren “Dbizi Parking” zerbitzuaren kudeatzailea Donostiako Udala da, eta INTELLIGENT PARKING SL enpresak ardura hauek izango ditu, besteak beste: lokalerako sarbideen kontrola, zerbitzu horretan web bidez www.parkingverde.com edo PVerde-a aplikazioaren bidez erabiltzaileek egindako altak kudeatzea eta erositako abonua kobratzea.

Udalak esperientzia pilotu bat egin nahi du, ebaluatutakoan bizikleta/zikloen aparkaleku baten erabilerari buruzko datuak lortzeko, hala badagokio, esperientzia hori zabaltzeko bizikleta/zikloen aparkaleku berriak sortzeko. Esperientziaren iraupen zenbatetsia 12 hilekoa da.

Bigarrena. Erabiltzaileak.

1. 18 urtetik gorako pertsonak alta har dezakete zerbitzuan beraiek aparkalekuaren erabiltzaile izateko edo aparkalekuaren erabilera beren (aita, ama edo tutoreen) kargura dauden adin txikikoei (14 urtetik aurrera) baimentzeko. Kasu horretan, aparkalekua erabiliko duten pertsonak adina alta egin beharko dituzte zerbitzuan.

Dagozkion kontratuak sinatu beharko dituzte (bat erabiltzaile bakoitzeko) Intelligent Parking SL (PVerde-a) enpresarekin.

Eta mugikor zenbaki (desberdin) bat eta bizikleta/ziklo bat edo bi lotu zerbitzuko alta bakoitzari eta dagokion PVerde-aren kontratuari.

2. Pertsona juridikoen kasuan, zerbitzuaren erabiltzaile gisa alta har dezakete enplegatuak erabiltzaile gisa baimentzeko.

Dagozkion kontratuak sinatu beharko dituzte (bat erabiltzaile bakoitzeko) Intelligent Parking SL (PVerde-a) enpresarekin.

Eta mugikor zenbaki (desberdin) bat eta bizikleta/ziklo bat edo bi lotu zerbitzuko alta bakoitzari eta dagokion PVerde-aren kontratuari.

Hirugarrena. - Dbizi Parking zerbitzuan alta hartzeko prozedura.

Dbizi Parking zerbitzuan alta hartzeko eman behar diren urratsak hauek dira:

1. PVerde-a zerbitzuan alta hartzea mugikorrek doako "PVerde-a" aplikazioaren bidez edo web bidez www.parkingverde.com zerbitzu horretarako INTELLIGENT PARKING SL enpresak ezarritako baldintzak onartuta. IFK B.01529361.

PVerde-a zerbitzuan alta hartzeko, sistematik kode bat bidaltzen da zerbitzuaren erabiltzaileak PVerde-arekin egindako kontratuari lotutako mugikorrera.

Kontratu horrek aukera emango du Dbizi Parking aparkaleku zerbitzuan alta hartzeko web orriaren bidez edo PVerde-aren App-aren bidez.

2. Dbizi Parking zerbitzuan alta hartzea abonua bat erosita (eta eskudiruz ordainduta), espresuki adierazita altaren luzapen automatikoa eta berritze automatikoa nahi den, eta agiri honetan ezartzen diren sarbide eta erabilera baldintzak onartuta.

Abonua erosteko prozesua amaitzeak berekin dakartza baldintzak onartzea eta Dbizi Parking zerbitzuko alta.

Abonua erosteko prozesuan zehar erabiltzailearekin erabiliko den komunikazio nagusia telefono mugikorra izango da.

3. Izena emateko prozesua amaitutakoan, PVerde-a zerbitzuak Dbizi Parking aparkalekurako sarbide gakoak komunikatuko ditu app-aren bidez edo erabiltzailearen fitxan, web bidez erregistratu bada, PVerde-arekin egindako kontratuari eta Dbizi Parking zerbitzuko altari lotutako mugikor zenbakira.

Gakoak eta beste identifikazio baliabide batzuk pertsonalak eta besterenezinak dira (adin txikikoen eta pertsona juridikoen kasuan baimendutako erabiltzaileei lagapena egiteari kalterik egin gabe) eta erositako abonuari dagokion baliozkotasuna izango dute.

Dbizi Parking sisteman aparkatzeko eskubidearen titularrak ezin ditu transferitu eskuratutako eskubideak zerbitzuan alta hartzearen eta zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzen onarpenaren ondorioz.

Dbizi Parking zerbitzuak alta berriak sinatzea mugatu dezake plaza erabilgarrien eta zerbitzuaren asetasun mailaren arabera.

Laugarrena. Aparkalekuaren ordutegia.

Aparkalekuak 6:30etik 23:00etara funtzionatuko du.

Kausa justifikatuengatik, Dbizi Parking zerbitzuak eskubidea du zerbitzua erabiltzeko ordutegia edo aparkalekua irekitzeko denbora aldatzeko, aurrez abisatu gabe. Hala ere, erabiltzaileei horri buruzko edozein aldaketa komunikatzen saiatuko da.

Bosgarrena. Abonu modalitateak. Abonua ordaintzeko prozedura.

Abonu modalitateak.

Erabiltzaileak edozein abonua modalitate aukera dezake, eta horien prezioak Donostiako Udalak onartuko ditu. Hileko abonuek erosketa hilabete naturalarekin bat datorren iraupena izango dute. Erabiltzaileak, hala ere, zerbitzuko altaren luzapen automatikoa aukera dezake bere abonuen berritze automatikoaren bidez.

Abonuen erosketak eskubidea ematen du Donostiako Autobus Geltokiko bizikleta/zikloen aparkalekua eta, hala badagokio, bizikleta/zikloentzat gaitu eta Dbizi Parking zerbitzuaren barruan sartuko diren beste aparkaleku batzuk erabiltzeko, jagoletza edo zaintzarik gabe.

Abonua berarekin bizikleta/ziklo bakarra aparka daiteke. Hala ere, abonuen titularrak sisteman gehienez identifika ditzakeen bi bizikleta/zikloetatik zer bizikleta/ziklo aparkatuko duen aukera dezake.

Maximo 6 (Max 6) abonua aparkalekuan hilabete natural batean zehar aparkatzeko eskubidea ematen du, bizikleta/zikloa jarraian aparkatzeko 6 eguneko gehieneko denbora mugarekin hemendik aurrera kontatuta:

—erabiltzailea aukeratutako bitartekoaren bidez (gakoak, telefono deia...) identifikatzen den ordutik aparkalekuan sartzeko eta bizikleta/zikloa aparkatzeko

—erabiltzailea berriz identifikatzen den arte aparkalekuan sartzeko eta bere bizikleta/zikloa berreskuratzeko.

Maximo 3 (Max 3) abonua aparkalekuan hilabete natural batean zehar aparkatzeko eskubidea ematen du, bizikleta/zikloa jarraian aparkatzeko 3 eguneko gehieneko denbora mugarekin hemendik aurrera kontatuta:

—erabiltzailea aukeratutako bitartekoaren bidez (gakoak, telefono deia...) identifikatzen den ordutik aparkalekuan sartzeko eta bizikleta/zikloa aparkatzeko

—erabiltzailea berriz identifikatzen den arte aparkalekuan sartzeko eta bere bizikleta/zikloa berreskuratzeko.

Maximo 6 eta maximo 3 abonuetan jarraian aparkatzeko gehiegizko denborak Maximo 6 eta Maximo 3 abonuetako "gehiegizko egunen" erosketa automatikoa ekarriko du berekin, 0,50 euroko karguarekin, eta beste kargu bat sortuko da etengabeko aparkalekuan lehen gehiegizko denboratik 24 ordu igarotzen direnetik, zerbitzuan alta hartzen duen pertsonak erositako abonuen arabera.

Maximo 1 abonua aparkalekuan 24 orduz aparkatzeko eskubidea ematen du, hemendik aurrera kontatuta:

—erabiltzailea aukeratutako bitartekoaren bidez (gakoak, telefono deia...) identifikatzen den ordutik aparkalekuan sartzeko eta bizikleta/zikloa aparkatzeko.

—erabiltzailea berriz identifikatzen den arte aparkalekuan sartzeko eta bere bizikleta/zikloa berreskuratzeko.

Maximo 1 abonua erosi eta hurrengo 48 orduetan erabili beharko da.

Maximo 1 abonuan aparkatzeko gehiegizko denborak berekin ekarriko du luzapen automatikoa zerbitzuaren altan, Maximo 1 abonu berriaren erosketa automatikoa, eta dagokion prezio publikoa ordaintzeko betebeharra sortuko da. Eta aparkalekuan lehen gehiegizko denboratik 24 ordu igarotzen direnetik beste luzapen automatiko bat sortuko da zerbitzuaren altan, Maximo 1 abonu berriaren erosketa automatikoa, eta dagokion prezio publikoa ordaintzeko dagozkion betebeharren sortzapena.

Erabilera denbora “Dbizi Parking” sisteman erregistratutako datuen arabera zehaztuko da, eta erabilera aldia zein izan den frogatzeko izango dira.

Ordaintzeko prozedura.

PVerde-a zerbitzuan izena ematean emandako kreditu txartelan zerbitzu horren titularrak egingo duen karguaren bidez egingo da ordainketa.

Erositako abonuen zenbatekoaren kargua aparkalekua erabili aurretik egingo da, Max 1 abonuen erosketa automatikoaren eta Max 6 eta Max 3 abonuen “gehiegizko egunen” kasuan izan ezik.

Max 3 eta Max 6 abonuetan berritze automatikoa eskatu bada, hilaren 26tik 00:00etatik aurrera egingo da, eta hilaren 26ko 00:00ak eta hil bakoitzaren azken eguneko 11:59 artean (biak barne) egingo da kargua txartelan.

Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du kreditu txartela ez deuseztatzeko, edo haren aritzeko eran egindako edozein aldaketa PVerde-a zerbitzuaren titularrari jakinarazteko.

Emandako txartelean, erabiltzaileak baimen iraunkor bat ezartzea onartzen du PVerde-a zerbitzuaren titularraren alde, erositako abonuei dagozkien zerbitzuengatik kargu egokiak egiteko, barnean hartuta Max 1 abonuen erosketa automatikoaren eta Max 6 eta Max 3 abonuen etengabeko aparkaldiko “gehiegizko egunen” ondorioz sortutako karguak.

PVerde-ak hutsegitez behar ez den kobrantza bat egin badu, erabiltzaileak kantitate horiek berreskuratzeko eskubidea izango du, hilabeteko epean, erreklamazioa justifikazio nahikoarekin egiten denetik hasita.

Seigarrena. Baja zerbitzuan.

Erabiltzaileak eskatutako baja.

Erabiltzaileak baja har dezake Dbizi Parking zerbitzuan, aplikazio mugikorrean edo web orrian adierazita erositako abonua ez duela berritu nahi.

Luzapen automatikoko alten kasuan, abonua aparkalekua erabili aurretik ordaintzen denez, hilaren azken egunetan, zerbitzuko baja komunikazioa gehienez abonua erosi/berritu den hilaren 25eko 23:59ra arte egin daiteke. Hilaren 26tik aurrera 00:00etan, zerbitzuan alta luzatuta dagoela ulertuko da eta abonua datorren hilabete naturalean zehar berrituta, eta ezingo da baja hartu zerbitzuan.

Baja automatikoa abonua faltagatik

“Dbizi Parking” zerbitzuak baja emango die zerbitzuan alta luzapen automatikoarekin eta abonua berritze automatikoarekin sinatu duten erabiltzaile guztiei, eta txartelean kargua ezin egin izan zaienei hilaren 26ko 00:00ak eta hilaren azken eguneko 23:59ak artean.

Zazpigarrena. Zerbitzuaren erabilera.

Sarbidea Autobus Geltokiko Dbizi Parkingera.

Sarbidea Egiako lurpeko Autobus Geltokiko sarbide arrapatatik egingo da soil-soilik.

Autobus Geltokiko sarbidetik eta zona komunitatik, bizikleta/zikloa eskuan egingo da zirkulazioa.

Guztiz debekatuta dago bizikleta/zikloa Autobus Geltokian/Geltokitik sartzea eta ateratzea igogailuetatik eta ibilgailu motordunen sarbide arrapatatik.

Erabiltzaileak Autobus Geltokiko arduradunak zona komunen erabilerari eta segurtasunari buruz emandako arauak eta jarraibideak jarraituko ditu.

Erabiltzailea izango da hirugarrenei sortutako kalteen arduradun bakarra.

Erabiltzaileak Dbizi Parking zerbitzuaren bizikleta/zikloen aparkaleku seguru automatizatueterako sarbidea izango du aplikazio mugikorraren, kode pertsonalen edo identifikazio pertsonalerako telefono deia bidez.

Zerbitzuko alta bakoitzeko ezin da erabili aparkaleku bat baino gehiago aldi berean, eta abonua erostea ez du eskubiderik ematen erabiltzaile bakoitzarentzat plaza jakin bat erreserbatzeko horretarako gaitutako barrutiaren barruan.

Baliteke sistema oso erabilia izatea eta beti ez bermatzea bizikleta/zikloa aparkatzeko espazioa erabilgarri egotea. Dbizi zerbitzuak ez du itzuliko zenbatekorik, aparkalekua ezin bada erabili beteta egoteagatik edo hura ixtera behartzen duen edozein kausagatik.

Sartzeko eta irteteko prozedura

Bizikleta/ziklo bat aparkalekuan aparkatzeko prozedura jarraian deskribatutakoa da:

Erabiltzaileak zuzen baliozkotu beharko du bere kodea aplikazio mugikorraren, botoietan gako pertsonalaren edo sarrerako atean telefono deia bidez. Pertsona bat eta bizikleta/ziklo bat bakarrik sar daiteke atea irekitzen den bakoitzean.

Jarraian, bizikleta aparkalekuko ate automatizatu ireki egingo da; barrutian sartuko da, atea ixteko zain egonik zerbitzukoak ez diren pertsonak sartzea ekiditeko, aparkaleku plaza aukeratuko du eta bizikleta/zikloa lotuko du. Bizikleta/zikloak behar bezala giltzatu beharko dira bizikleta aparkagailura.

Azkenik, erabiltzailea espaziotik irtengo da etengailua sakatuta, atea ixteko zain egonik zerbitzukoak ez diren pertsonak sartzea ekiditeko, eta beti ziurtatuta bizikleta/zikloen aparkalekuaren barrutia ondo itxita geratu dela.

Bizikleta/zikloa aparkalekutik ateratzeko unean, erabiltzailea berriz identifikatuko da aplikazio mugikorraren, gako pertsonalen edo telefono deiaren bidez, bizikleta/zikloen aparkalekuko ate automatikoa irekitzeko, bizikleta/zikloa eramateko eta berriz ixteko.

Erabiltzaileak bere gain hartzen du bere burua identifikatzeko betebeharra bere bizikleta/zikloa aparkalekuan uzteko edo berreskuratzeko, eta aparkatzeko denboren sisteman agertzen diren datuetan oinarrituta sortzen diren betebeharrak ekonomikoen erantzule izango da, identifikatzeko betebeharra bete ez badu.

Beste baldintza batzuk

Erabiltzaileak sisteman behar bezala erregistratutako bizikleta/ziklo bat soilik aparkatzeko erabiliko du bizikleta/zikloen aparkalekua, eta ezin du erabili aparkaleku bat baino gehiago aldi berean.

Plaza bakoitzean bizikleta/ziklo bakarra aparka daiteke, eta ez da onartzen beste edozein elementu edo osagarri ainguratzea edo giltzatzea, giltzarrapoa izan ezik. Aparkalekuaren barruan guztiz debekatuta dago bizikleta/zikloa ez den edozein gauza/osagarri uztea.

Zerbitzu emaileak bizikleta/zikloari gertatzen zaionari soilik erantzungo dio, bizikleta/zikloen aparkalekuko lokalerako sarbide kontrolaren sisteman akats bat sortzen bada.

Bizikleta/zikloa utzitakoan, erabiltzaileak aparkalekua erabiltzeko eskubidea du erositako abonuen duen indarraldian zehar.

Ezaugarri bereziak dituzten zikloak ezaugarri horietara egokitzen diren plazetan aparkatu beharko dira, eta ezin da okupatu aparkaleku plaza bat baino gehiago edo beste bizikleta/ziklo batzuk sartzea edo irtetea oztopatu. Ziklo horien zabalera maximoa 0,90 metrokoa izango da.

Haurrak edo salgaiak eramateko orgak ezingo dira aparkatu bizikleta/ziklotik bereiz. Bizikleta/ziklo bati lotuta aparkatu beharko dira, eta haien ezaugarrietara egokitzen diren plazak okupatu.

Laguntza elektrikoa duten bizikleta/zikloetarako plazak bizikleta/ziklo mota horretarako erabiliko dira soilik.

Aparkalekura bideratutako espazioaren barruan, ezarritako antolamendua errespetatu beharko da. Ezingo da bizikleta/zikloa aparkatu puzgailuaren eta bizikleta/zikloa konpontzeko espazioetan.

Pertsona abonatua erabilera arauak ez betetzeagatik eta ibilgailua barrutiaren barruan gidatzean trebetasun faltagatik sortuko dituen kalte-galeren erantzule izango da Donostiako Udalaren aurrean eta gainerako erabiltzaileen aurrean.

Ezin dira xede komertzialekin alokatu edo erabili “Dbizi Parking” zerbitzua osatzen duten elementuak, hala nola aplikazio mugikorra, gako pertsonalak, aparkaleku moduluak, softwarea, etab.

Ezinbesteko kasuetan, kudeatzaileak baimena du bizikleta/zikloa tokiz aldatzeko. Kasu horietan, “Dbizi Parking” zerbitzuak konpromisoa hartzen du erabiltzaileari bizikleta/zikloa utzi den toki berria jakinarazteko, hark zerbitzua erabiltzen jarrai dezan geratzen zaion denboran zehar.

Zortzigarrena. Bizikleta/zikloak desalojatzea.

Erabilera sistemaren erabiltzaile guztiei erreserbatzeko premia beteta, eta Max 1 abonuen erosketa automatikoa eta Max 6 eta Max 3 abonuen etengabeko aparkaldiko “gehiegizko egunak” gorabehera, bizikleta/zikloa aparkatu duenetik segidako 30 eguneko epean aparkalekua desokupatzen ez duen erabiltzaileak baimena ematen die:

—Udalari, giltzarrapoa hausteko eta bizikleta/zikloa horretarako gaituko diren lokaletara lekualdatzeko eta han uzteko.

—PVerde-ari, bizikleta/zikloa lekualdatzeko eta uzteko kostuei dagokien zenbatekoak ordaintzeko gaitutako ordainketa sistemaren bidez kobratzeko, dagozkien prezio publikoen arabera.

Dbizi Parking aparkalekutik kanpo igarotzen den denbora aparkalekuan gehiegizko denbora gisa zenbatuko da, seigarren klausulan aurreikusitako prezio publikoen sortzapena egiteko.

Zerbitzuan erregistratuta ez dagoen bizikleta/ziklo bat detektatzen bada, erretiratu egingo da. Erretiratutako bizikleta/zikloa berreskuratzeko, uzteko unean hura edukitzea frogatu beharko da.

Ez da izango kalte-ordainerako eskubiderik giltzarrapoa hausteagatik.

Bederatzigarrena. Zerbitzuaren bezeroaren arreta eta erabiltzailearen eskubideak.

1. Sarbide kontrola

Erabiltzaileak PVerde-ari zuzen diezazkioke bere kontsultak sarbideetako gorabeherei eta zerbitzuko altei eta bajei buruz 673.692.043 (7:00 – 15:30) telefonoaren bidez, zerbitzua erabiltzeko behar diren prozesu guztietan aholkularitza eta laguntza jasotzeko. (Bizikleta/zikloak aparkatzea eta/edo erretiratzea...). Telefono hori sarbide kontroleko gorabeheretarako soilik erabil daiteke.

2. Zerbitzuari buruzko erreklamazioak

Zerbitzu prestazioan eragina duten baldintzei eta inguruabarrei buruz edozein erreklamazio egiteko, erabiltzaileak Dbizi Parking zerbitzura jo beharko du posta elektronikoko honen bidez dbiziparking@donostia.eus.

3. Erabiltzaileak informazioa jasotzeko eskubidea du, web orriaren edo beste bitarteko baten bidez, zerbitzuaren gorabeheraz, tarifez eta har daitezkeen neurriez eta, azkenean, egoki deritzon erreklamazioak jartzeko.

Agiri honen barruan hartutako erabilera baldintzetan aldaketarik badago, baldintza berriak onartu beharko dira app edo web orri bidez, eta zerbitzuaren hartzaileari baja eman dakioke baldintza horiek onartzen ez baditu, aurrez tramite egokiak eginda. Zerbitzuan baja hartzeak ez du zenbatekoak itzultzeko bide emango lehenago lortutako abonuegatik.

Baldintzak onartu direla ulertuko da baldintza berriak komunikatu ondoren erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen badu.

Hamargarrena. - Erabiltzailearen betebeharrak.

Erabiltzaileak, zerbitzua erabiltzen duen bakoitzean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Zerbitzua eta haren osagai guztiak ardura osoz erabiltzeko.
- b) Erabilera ez lagatzeko inolako kontzepturengatik, ez hirugarrenei, ez senideei.
- c) Aparkalekua erabiltzaile bakoitzak erregistratutako bizikleta/zikloekin soilik erabiltzeko, agiri honetan ezarritakoari jarraikiz.
- d) Jakinarazteko, Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuaren bulegoetan, aparkalekuren batek duen edozein matxura edo kalte, lekua eta zer egoeratan dagoen adierazita.
- e) Erabiltzailea, aparkalekuan sartzen denetik eta bizikleta/zikloa erretiratu eta irteten den arte, aparkalekuaren erabilera eta kontserbazio onaz arduratuko da.
- f) Erabiltzailea, aparkalekua erabiltzean, behartuta dago aparkalekua ondo itxita geratzen dela egiaztatzen.
- g) Langile baimenduei edo horretarako esleitutakoei edo agintariei, eskatzen badute, datu hauek emateko: izena, abizenak edo bere aparkalekuek sisteman dituzten xehetasunak.
- h) Jakinarazteko bere abonuari lotuta sor daitezkeen datu aldaketak, eta kobrantzak egiteko erabili behar duen banku txartelaren aldaketa.
- i) Zerbitzuari emandako datu guztiak egiazkoak direla ziurtatzeko.
- j) Sisteman sartzeko gakoak eta kodeak modu seguruan gordetzeko.
- k) Ezingo dira margotu esloganak, marrazkiak, grafitiak, marrazkiak, pintadak edo antzekoak "Dbizi Parking" bizikleta/zikloen aparkalekua osatzen duten inolako elementutan.

Hamaikagarrena. Erantzukizunpeko Adierazpena.

Zerbitzuan alta hartzen duen pertsonak adierazten du adinez nagusia dela, berak eta zerbitzuan altari atxikitzen dizkion erabiltzaileek ezagutzen eta onartzen dituztela ibilgailuen zirkulazioari eta gidatzeari buruz indarrean den araudia, bizikleta/zikloak erabiltzeko arauak eta oinezko eta gainerako ibilgailuekiko bizikidetzari buruzko arauak.

Erabiltzaileak adierazten du badakiela Donostiako Udalak grabazioak egingo dituela zirkuitu itxian bizikleta/zikloen aparkalekuaren barrutiaren barruan, "Dbizi Parking" zerbitzuaren erabilera egokiari begira eta bere funtzioak baliatuz.

Erabiltzaileak adierazten du baimena ematen diola Donostiako Udalari app-a edo posta elektronikoa erabiltzeko erabiltzailearekin komunikatzeko sistema gisa.

Hamabigarrena. Kalteak.

Dbizi Parking zerbitzuan alta hartzeak ez dakar berekin aparkatutako bizikleta/zikloak jagoteko eta zaintzeko betebeharra. Dbizi Parking aparkalekua erabiltzailearen gain eta galorde izango da.

Erabiltzaileek instalazioetan sortzen dituzten kalteak Udaleko teknikariek egingo duten tasazioaren arabera ordainduko dira eta Udalak aurrez eskatuta.

Hamahirugarrena. Datuen babesa.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, abonua erostean emandako datu pertsonalak Donostiako Udalaren titulartasuneko "Dbizi Parking" fitxategian sartuko dira eta zerbitzu prestazioarekin lotutako zereginak egiteko erabiliko dira.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak balia ditzake, Udalari idazki bat bidalita, Udalinfo, Ijentea 1 kalean. Nahi badu, horra jo dezake abonua erostean jasotako datuen xedeari, tratamenduari eta erantzukizunari buruzko informazio gehiago izateko ere.

Aparkalekua bideoz zainduta dago eta, beraz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Datuak Babesteari buruzkoaren 5.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hau jakinarazten da:

1. Irudiei dagozkien datu pertsonalak Donostiako Udalaren ardurapeko eta 2017/02/06 (BOE.....) ebazpen bidez sortutako "Autobus geltokiko bizikleta aparkalekuko kamaren irudien grabazioa" fitxategian sartuko direla, eta/edo segurtasun xedez tratatuko direla bideo-zaintzako sistema baten bidez.
2. Bere datu pertsonalen hartzailea INTELLIGENT PARKING, S.L. CIF nº B.01529361 enpresa dela.
3. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak balia ditzakeela, Udalari idazki bat bidalita, Udalinfo, Ijentea 1 kalean. Nahi badu, horra jo dezake jasotako datuen xedeari, tratamenduari eta erantzukizunari buruzko informazio gehiago izateko ere.
4. Tratamendu fitxategiaren arduraduna Donostiako Udala dela, Ijentea 1 kalean kokatua.

Hamalagarrena. Ez betetzeagatiko erantzukizuna, aplikatzekoa den legeria eta jurisdikzio eskuduna.

Dbizi Parking zerbitzuaren Sarbide eta Erabilera Baldintzetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeak berekin ekarriko du zerbitzuan baja ematea, tramite egokiak egindakoan.

Hortik sortuko diren auzigaiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren mende jarriko dira.

CONDICIONES DE ACCESO Y UTILIZACIÓN DEL SERVICIO “Dbizi Parking”: APARCAMIENTOS SEGUROS DE BICICLETA/CICLOS AUTOMATIZADOS EN SAN SEBASTIÁN (EXPERIENCIA PILOTO). V1

Primera.- Datos de Identificación del Gestor del servicio.

El Gestor del servicio “Dbizi Parking” de aparcamiento seguro de bicicleta/ciclos automatizado es el Ayuntamiento de San Sebastián, y la empresa INTELIGENT PARKING SL es la responsable, entre otros, del control de accesos al local, de gestionar las altas de las personas usuarias en dicho servicio que se efectúen vía web www.parkingverde.com o aplicación Pverde, y de la realización de los cobros por los abonos adquiridos.

El Ayuntamiento pretende realizar una experiencia piloto que una vez evaluada permita obtener datos de uso de un aparcamiento de bicicleta/ciclos para, en su caso, hacer extensiva la experiencia con la creación de nuevos aparcamientos de bicicleta/ciclos. La duración estimada de la experiencia es de 12 meses.

Segunda.- Personas usuarias.

1.-Las personas mayores de 18 años podrán darse de alta en el servicio con el objeto de ser usuarias del parking ellos mismos o para autorizar el uso del aparcamiento a menores (de 14 años en adelante) a su cargo (padres, madres o tutores), en cuyo caso deberán efectuar tantas altas en el servicio como personas vayan a hacer uso del aparcamiento.

Deberán suscribir los contratos correspondientes (uno por persona usuaria) con Intelligent Parking SL (Pverde).

Y asociar un nº móvil (diferente) y una o dos bicicletas/ciclos a cada alta en el servicio y a su respectivo contrato con Pverde.

2.-En el caso de las personas jurídicas, podrán darse de alta como usuarias del servicio con el objeto de autorizar como usuarios a empleados.

Deberán suscribir los contratos correspondientes (uno por persona usuaria) con Intelligent Parking SL (Pverde).

Y asociar un nº móvil (diferente) y una o dos bicicletas/ciclos a cada alta en el servicio y a su respectivo contrato con Pverde.

Tercera. - Procedimiento para darse de alta el servicio Dbizi Parking.

Los pasos a seguir para darse de alta en el servicio Dbizi Parking, son los siguientes:

1.- Darse de alta en el servicio Pverde mediante la aplicación móvil gratuita “PVerde” o via web www.parkingverde.com con aceptación de las condiciones establecidas para dicho servicio por INTELLIGENT PARKING, S.L. CIF nº B.01529361.

El alta en el servicio Pverde se realiza mediando el envío de un código desde el sistema al móvil que la usuaria del servicio asocia al contrato con Pverde.

Este contrato va a permitir darse de alta a través de la web ó App de Pverde en el servicio de aparcamiento de Dbizi Parking.

2.- Darse de alta en el servicio Dbizi Parking con la adquisición de un abono (y pago efectivo) indicando expresamente si se desea la prórroga automática del alta y la renovación automática del abono y aceptando las condiciones de acceso y utilización que se establecen en este documento.

El hecho de finalizar el proceso de compra del abono, comporta la aceptación de las condiciones y el alta en el servicio Dbizi Parking.

La comunicación principal con la usuaria, durante el proceso de adquisición del abono, será a través del teléfono móvil.

3.- Finalizado el proceso de inscripción el servicio Pverde comunicará las claves de acceso al aparcamiento de Dbizi Parking a través de la app o en la ficha de la persona usuaria en caso de registro vía web al nº de móvil asociado al contrato con Pverde a al alta en el Servicio de Dbizi-parking.

Las claves y otros medios de identificación tienen carácter personal e intransferible (sin perjuicio de su cesión a las personas usuarias autorizadas en el caso de menores y de personas jurídicas) y tendrán la validez correspondiente al tipo de abono adquirido.

El titular del derecho de aparcamiento en el sistema Dbizi Parking no puede transferir los derechos adquiridos como consecuencia del alta en el servicio y de la aceptación de las condiciones de acceso y utilización del servicio.

El servicio Dbizi Parking puede limitar la suscripción de nuevas altas en función de la disponibilidad de plazas y del grado de saturación del servicio.

Cuarta.- Horario del Aparcamiento.

El aparcamiento estará en funcionamiento desde las 6:30 a las 23:00 horas.

Por causas justificadas, el servicio “Dbizi Parking” se reserva el derecho de cambiar el horario de utilización del servicio, el tiempo de apertura del aparcamiento sin previo aviso. No obstante, se tratará de comunicar a las personas usuarias cualquier modificación al respecto.

Quinta.- Modalidades de abono. Procedimiento de pago del Abono.

Modalidades de Abono.

La persona usuaria podrá optar por cualquiera de las modalidades de abono cuyos precios sean aprobados por el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián. Los abonos mensuales tendrán una duración coincidente con el mes natural de su adquisición. La persona usuaria podrá optar, no obstante, por la prórroga automática del alta en el servicio con la renovación automática de su abono.

La compra del abono da derecho a la utilización del aparcamiento para bicicletas/ciclos, sin vigilancia ni custodia, sito en la Estación de Autobuses de Donostia San Sebastián y de aquellos otros aparcamientos, que, en su caso, se habiliten para bicicletas/ciclos y se incluyan dentro del servicio “Dbizi Parking”.

Con el mismo abono podrá aparcarse una sola bicicleta/ciclo. No obstante, el titular del abono podrá elegir qué bicicleta/ciclo aparcarse entre las dos bicicletas/ciclos que como máximo podrá identificar en el sistema.

El abono máximo 6 (Max 6) da derecho a aparcarse durante un mes natural en el aparcamiento, con el límite de tiempo máximo de aparcamiento continuado de la bicicleta/ciclo de 6 días a contar:

- desde la hora en que la persona usuaria se identifica a través del medio elegido (claves, llamada telefónica..) para acceder al aparcamiento y aparcarse la bicicleta/ciclo
- hasta que la persona usuaria vuelve a identificarse para acceder al aparcamiento y recuperar su bicicleta/ciclo.

El abono máximo 3 (Max 3) da derecho a aparcarse durante un mes natural en el aparcamiento, con el límite de tiempo máximo de aparcamiento continuado de la bicicleta/ciclo de 3 días a contar:

- desde la hora en que la persona usuaria se identifica a través del medio elegido (claves, llamada telefónica) para acceder al aparcamiento y aparcarse la bicicleta/ciclo.
- hasta que la persona usuaria vuelve a identificarse para acceder al aparcamiento y recuperar su bicicleta/ciclo.

El exceso de tiempo de aparcamiento continuado en los abonos máximo 6 y máximo 3 supondrá la compra automática del “exceso de días” en abonos Máximo 6 y Máximo 3 con el cargo de 0,50€ y se devengará un nuevo cargo cada vez que transcurran 24 horas desde el primer exceso de tiempo en el aparcamiento continuado, según el abono adquirido por la persona que se da de alta en el servicio.

El abono máximo 1 da derecho a aparcarse durante 24 horas a contar:

- desde la hora en que la persona usuaria se identifica a través del medio elegido (claves, llamada telefónica...) para acceder al aparcamiento y aparcarse la bicicleta/ciclo.
- hasta que la persona usuaria vuelve a identificarse para acceder al aparcamiento y recuperar su bicicleta/ciclo.

El abono máximo 1 deberá utilizarse en las 48 horas siguientes a su compra.

El exceso de tiempo de aparcamiento en el abono máximo 1 supondrá la prórroga automática en el alta del servicio, la compra automática de un nuevo abono máximo 1 y se devengará la obligación de abono del precio público correspondiente. Y por cada 24 horas más que transcurran desde el primer exceso de tiempo en el aparcamiento se producirá una nueva prórroga automática en el alta en el servicio, la compra automática de un nuevo abono máximo 1 y el devengo de las obligaciones correspondientes al pago del precio público correspondiente.

El tiempo de utilización se determinará según los datos registrados al sistema "Dbizi Parking" y servirán de prueba de cuál ha sido el período de uso.

Procedimiento de Pago.

El pago se hará a través del cargo a la tarjeta de crédito facilitada con ocasión de la inscripción en el servicio Pverde que realice el titular de dicho servicio.

El cargo del importe del abono adquirido, se realizará con carácter previo al uso del aparcamiento, salvo en el caso de compra automática del abono Max 1 y del "exceso de días" en abonos Max 6 y Max 3.

En el caso de abonos Max 3, Max 6 en los que se ha solicitado la renovación automática, esta se producirá a partir del día 26 a las 00:00 horas y el cargo en la tarjeta se realizará entre el día 26 a las 0:00 horas y el último día de cada mes a las 11:59 ambos incluidos.

La persona usuaria se compromete a no cancelar la tarjeta de crédito, o a informar de cualquier cambio en la operativa de esta al titular del servicio Pverde.

En la tarjeta facilitada, la persona usuaria acepta que se establezca una autorización permanente a favor del titular del servicio Pverde, para que se le hagan los cargos pertinentes por los servicios correspondientes a los abonos adquiridos incluidos los cargos que se devenguen como consecuencia de la compra automática del abono Max 1 y del "exceso de días" en el aparcamiento continuado de los abonos Max 6 y Max 3.

En el caso de que, por error, el servicio Pverde haya realizado un cobro indebido, la persona usuaria tendrá derecho a que se le devuelvan estas cantidades, en el plazo de un mes, contado a partir de que se realice la reclamación con justificación suficiente.

Sexta.- Baja del servicio.

Baja a solicitud del la persona usuaria.

La persona usuaria podrá darse de baja del servicio Dbizi Parking indicando en la aplicación móvil o a través de la web que no desea renovar automáticamente el abono adquirido.

En el caso de altas en el servicio con prórroga automática, dado que el pago del abono se hace con anterioridad al uso del aparcamiento, en los últimos días del mes, la comunicación de la baja en el servicio ha de efectuarse como máximo hasta el día 25 a las 23:59 horas del mes en el que el abono se ha adquirido/renovado. A partir del día 26 a las

00:00 horas se entenderá prorrogada el alta en el servicio y renovado el abono durante el mes natural siguiente y no podrá efectuarse la baja en el servicio.

Baja automática por falta de abono

El servicio “Dbizi Parking” dará de baja, a todas aquellas personas usuarias que hayan suscrito el alta en el servicio con prórroga automática y la renovación automática del abono a las que no haya podido hacérseles el cargo en la tarjeta entre en el día 26 a las 00:00 horas y el último día de mes a las 23:59 horas.

Séptima.- Utilización del servicio.

Accesos a Dbizi Parking de la Estación de autobuses.

El acceso se realizará única y exclusivamente por la rampa de acceso a la Estación de autobuses del subterráneo de Egja.

La circulación por el acceso y las zonas comunes de la Estación de Autobuses se realizarán con la bicicleta/ciclo en la mano.

Queda terminantemente prohibido el acceso/salida de bicicleta/ciclo a la/de la estación de autobuses por los ascensores y las rampas de acceso de vehículos motorizados.

La persona usuaria seguirá las normas e instrucciones del responsable de la estación de autobuses respecto del uso y seguridad de las zonas comunes.

La persona usuaria será la única responsable de los daños causados a terceros.

La persona usuaria tendrá acceso al aparcamiento seguro para bicicletas/ciclos automatizado del servicio Dbizi parking mediante aplicación móvil, códigos personales o llamada telefónica para la identificación personal.

No se puede utilizar más de un aparcamiento simultáneamente por cada alta en el servicio y la compra de abono no da derecho a la reserva de una plaza concreta para cada persona usuaria dentro del recinto habilitado para este fin.

El sistema puede ser muy utilizado y no siempre garantizar la disponibilidad del espacio para aparcar la bicicleta/ciclo. El Servicio Dbizi no reembolsará ningún importe, en caso de que el aparcamiento no pueda ser utilizado por hallarse completo o por cualquier otra causa que haga necesario su cierre.

Procedimiento de acceso y salida

El procedimiento para estacionar una bicicleta/ciclo en el aparcamiento es el que se describe a continuación:

La persona usuaria deberá validar correctamente su código mediante la aplicación móvil, clave personal en botonera o mediante llamada telefónica frente a la puerta de acceso. Solo podrá acceder una persona y una bicicleta/ciclo cada vez que se abra la puerta.

Seguidamente, la puerta automatizada del aparcamiento para bicis se abrirá, accederá al recinto esperando a que la puerta se cierre para evitar la entrada de personas ajenas al

servicio, elegirá la plaza de aparcamiento y anclará la bicicleta/ciclo. Las bicicletas/ciclos deberán candarse adecuadamente al aparcabicis.

Finalmente, la persona usuaria saldrá del espacio pulsando el interruptor, esperando a que la puerta se cierre para evitar la entrada de personas ajenas al servicio, asegurándose siempre de que el recinto de aparcamiento de bicicletas/ciclos ha quedado bien cerrado.

En el momento de retirar la bicicleta/ciclo del aparcamiento, la persona usuaria volverá a identificarse mediante aplicación móvil, claves personales o llamada telefónica, para que la puerta automática del aparcamiento de bicicleta/ciclos se abra, retirar la bicicleta/ciclo y volver a cerrar.

La persona usuaria asume la obligación de identificarse cada vez que accede al aparcamiento para depositar o recuperar su bicicleta/ciclo, y responderá de las obligaciones económicas que se generen en base a los datos que figuren en el sistema sobre tiempos de aparcamiento en el caso de que no haya cumplido con su obligación de identificarse.

Otras condiciones

La persona usuaria destinará el aparcamiento para bicicleta/ciclo única y exclusivamente para el aparcamiento de una bicicleta/ciclo debidamente registrada en el sistema y no puede utilizar más de un aparcamiento al mismo tiempo.

Solo podrá aparcarse una bicicleta/ciclo por plaza, no estando permitido anclar o candar cualquier otro elemento o accesorio, salvo el candado. Dentro del aparcamiento queda totalmente prohibido dejar cualquier cosa/accesorio que no sea exclusivamente la bicicleta/ciclo.

El prestador del servicio responderá únicamente sobre lo que le pueda pasar a la bicicleta/ciclo en el caso de que se produzca un fallo en el sistema del control de accesos al local de aparcamiento de bicicleta/ciclos.

Una vez dejada la bicicleta/ciclo, la persona usuaria tiene derecho a hacer uso del aparcamiento durante el plazo de vigencia que tiene el abono que ha adquirido.

Los ciclos con características especiales, deberán aparcarse en aquellas plazas que se ajusten a sus características, no pudiéndose ocupar más de una plaza de aparcamiento ni dificultar la entrada o salida de otras bicicletas/ciclos. La anchura máxima de estos ciclos será de 0,90 metros.

Los carritos para llevar niños o mercancías no podrán aparcarse por separado de la bicicleta/ciclo. Deberán aparcarse unidos a una bicicleta/ciclo, y ocupar aquellas plazas que se ajusten a sus características.

Las plazas para bicicleta/ciclo con asistencia eléctrica serán utilizadas única y exclusivamente por este tipo de bicicleta/ciclo.

Dentro del espacio destinado a aparcamiento, se deberá respetar la ordenación establecida. No se permitirá el aparcamiento de bicicleta/ciclo en los espacios del inflador y de reparación de bicicleta/ciclo.

La persona abonada deberá responder frente al Ayuntamiento de San Sebastián, y frente a las demás personas usuarias, de los daños y perjuicios que les cause por incumplimiento de las normas de uso y por impericia en la conducción del vehículo dentro del recinto.

No se pueden alquilar o utilizar con fines comerciales cualesquiera de los elementos que componen el servicio “Dbizi Parking” tales como la aplicación móvil, claves personales, módulos de aparcamiento, software, etc.

En casos de fuerza mayor, el gestor queda autorizado a mover la bicicleta/ciclo de ubicación. En estos casos “Dbizi Parking” se compromete a informar a la persona usuaria del nuevo emplazamiento donde se deja la bicicleta/ciclo, para que éste pueda continuar haciendo uso del servicio por el tiempo que le reste.

Octava.- Desalojo de bicicletas/ciclos.

Atendida la necesidad de preservar el uso a todo el conjunto de personas usuarias del sistema, e independientemente de la compra automática del abono Max 1 y del “exceso de días” en el aparcamiento continuado de los abonos Max 6 y Max 3., la persona usuaria, que no desocupe el aparcamiento en un plazo de 30 días consecutivos desde el aparcamiento de la bicicleta/ciclo, autoriza:

—al Ayuntamiento, a romper el candado, al traslado y depósito de la bicicleta/ciclo a las dependencias que se habiliten para ello.

—a Pverde al cobro mediante el sistema de pago habilitado para los abonos del importe correspondiente a los costes del traslado y depósito de la bicicleta/ciclo conforme a los precios públicos correspondientes.

El tiempo que transcurra depositado fuera del Aparcamiento Dbizi Parking computará como tiempo de exceso en el aparcamiento a efectos del devengo de los precios públicos previstos en la cláusula Sexta.

Una vez detectada una bicicleta/ciclo que no esté registrada en el servicio, se procederá a su retirada. Para poder recuperar la bicicleta/ciclo retirada se deberá demostrar la posesión de esta en el momento de su depósito.

No habrá derecho a indemnización por la ruptura del candado.

Novena.- Atención al cliente del servicio y derechos de la persona usuaria.

1.- Control de accesos

La persona usuaria podrán dirigir sus consultas a Pverde sobre incidencias en los accesos, altas y bajas en el servicio, vía telefónica 673.692.043 (7:00 – 15:30) para poder ser asesorados y ayudados en todos los procesos necesarios para poder hacer uso del servicio. (Aparcamiento y/o retirada de bicicleta/ciclos...). Este teléfono solo podrá ser utilizado para incidencias del control de accesos.

2.- Reclamaciones del servicio.

Para cualquier otra reclamación sobre las condiciones y circunstancias que afecten a la prestación del servicio, la persona usuaria deberá dirigirse a dbizi Parking a través del siguiente correo electrónico dbiziparking@donostia.eus.

3.-La persona usuaria tiene derecho a ser informado, a través de la web o por cualquier otro medio, de las incidencias del servicio, las tarifas y de las medidas que se puedan tomar y, en último caso, a formular las reclamaciones que considere pertinentes.

En el caso de modificaciones en las condiciones de uso incluidas en este documento será necesaria la aceptación de las nuevas condiciones, vía app o web, pudiendo darse de baja a la persona receptora del servicio en caso de no aceptar dichas condiciones previos los trámites oportunos. La baja en el servicio no dará lugar a la devolución de los importes por los abonos obtenidos con anterioridad.

Se entenderá que las condiciones han sido aceptadas si habiéndose comunicado las nuevas condiciones, la persona usuaria hiciera uso del servicio.

Décima. - Obligaciones de la persona usuaria.

La persona usuaria se compromete, en cada ocasión que utilice el servicio a:

- a) Hacer uso del servicio y todos sus componentes con máxima diligencia.
- b) No ceder el uso por ningún concepto, a terceras personas, ni familiares.
- c) A utilizar el aparcamiento, exclusivamente, con las bicicleta/ciclos registradas de cada persona usuaria, conforme a lo establecido en este documento.
- d) A comunicar, en las Oficinas del Departamento de Movilidad del Ayuntamiento de San Sebastián, cualquier avería o daño que tenga algún aparcamiento, señalando el lugar y condiciones en que se encuentra.
- e) La persona usuaria, desde el momento de entrada en el aparcamiento, y hasta su salida después de la retirada de la bicicleta/ciclo, responderá personalmente de su buena utilización y conservación.
- f) La persona usuaria, al tiempo de utilizar un aparcamiento está obligada a comprobar que el aparcamiento queda bien cerrado.
- g) Facilitar a personal autorizado o asignado al efecto o autoridades que así lo requieran: nombre, apellidos o detalles de sus aparcamientos en el sistema.
- h) Comunicar las modificaciones de datos que se puedan producir en relación a su abono, así como el cambio de tarjeta bancaria en la que deba hacer los cobros.
- i) Asegurar que todos los datos facilitados al servicio son ciertos.
- j) Conservar de manera segura las claves y códigos de acceso al sistema.
- k) No se podrán pintar eslóganes, ralladas, grafitis, dibujos, pintadas o similares sobre ninguno de los elementos que constituyen el parking de bicicleta/ciclos "Dbizi Parking".

Undécima.- Declaración responsable.

La persona que se da de alta en el servicio declara ser mayor de edad, y que ella misma así como las personas usuarias que adscribe al alta en el servicio conocen y aceptan la normativa vigente sobre tránsito y conducción de vehículos y las normas de utilización de bicicleta/ciclos y de convivencia con viandantes y resto de vehículos.

La persona usuaria declara conocer que el Ayuntamiento de San Sebastián va a realizar grabaciones en circuito cerrado dentro del recinto del aparcamiento de bicicleta/ciclos con relación al uso adecuado de “Dbizi Parking” y en ejercicio de sus funciones.

La persona usuaria declara que autoriza al Ayuntamiento de San Sebastian a utilizar la app o el correo electrónico como sistema para comunicarse con la persona usuaria.

Duodécima.- Daños.

El alta en el servicio dbizi parking no implica el deber de vigilancia y custodia de las bicicleta/ciclos aparcadas. La utilización del aparcamiento dbizi Parking será por cuenta y riesgo de la persona usuaria.

Los daños que las personas usuarias causen en las instalaciones serán abonados conforme a la tasación que realicen los Técnicos del Ayuntamiento y previo requerimiento del Ayuntamiento.

Decimotercera.- Protección de datos.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, los datos de carácter personal facilitados en la compra del abono se incluirán en el fichero “Dbizi Parking” de titularidad del Ayuntamiento de San Sebastián y se utilizará para realizar las tareas relacionadas con la prestación del servicio.

Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito al Ayuntamiento, Udalinfo, en la calle Ijentea, 1, donde también podrá, si lo desea, dirigirse para ampliar la información sobre la finalidad, tratamiento y responsabilidad de los datos recogidos en la compra del abono.

El aparcamiento está videovigilado, por lo que de conformidad con lo dispuesto en el art. 5.1 LO 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos, se informa:

1. Que sus datos personales correspondientes a las imágenes se incorporarán al fichero denominado “Grabación de las imágenes de las cámaras del aparcamiento de bicicletas de la estación de autobuses” del que es responsable el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, creado por Resolución de 06/02/2017 (BOE.....) y/o serán tratados con la finalidad de seguridad a través de un sistema de videovigilancia.
2. Que el destinatario de sus datos personales es la empresa INTELLIGENT PARKING, S.L. CIF nº B.01529361.
3. Que puede ejercitar sus derechos de acceso, cancelación y oposición ante el responsable del fichero, dirigiendo un escrito al Ayuntamiento, Udalinfo, en la calle Ijentea, 1, donde también podrá, si lo desea, dirigirse para ampliar la información sobre la finalidad, tratamiento y responsabilidad de los datos recogidos.
4. Que el responsable del fichero tratamiento es el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián ubicado en C/ Ijentea, 1.

Decimocuarta.- Responsabilidad por incumplimiento, legislación aplicable y jurisdicción competente.

El incumplimiento de las obligaciones previstas en las condiciones de Acceso y Utilización del Servicio Dbizi-parking dará lugar a la baja en el servicio, efectuados los trámites oportunos.

Las cuestiones litigiosas que del mismo surjan se someterán a la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.